

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Beaumont kontseilariak eta Asiron alkateak Nasertic eta Animsa sozietateen arteko lankidetzaz hitzarmena sinatu dute

Akordioak 162 toki erakunderi emandako IKT zerbitzuak hobetu eta administrazio elektronikoa bultzatuko du Nafarroan

Asteartea, 2018.eko irailak 18

Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justiziako kontseilari María José Beaumontek eta Iruñeko alkate Joseba Asironen, Nasertic eta Animsako lehendakariak diren heinean, bi sozietateen arteko lankidetzaz hitzarmena sinatu dute.

Iñaki Pinillos (Nasertic) eta Txema Aginaga (Animsa) gerenteak beren

lehendakariekin batera izan dira gaur eguerdian, Nafarroako Jauregiko Areto Berdean egindako sinaketa-ekitaldian.

Administrazio elektronikoa ezartzerakoan toki erakundeek dituzten konexio telematikoko arazoak konpontzeko xedez, Naserticek konektibitate zerbitzuak emango ditu autoprestazio-araubidean eta banda zabal korporatiboaren hedapena egingo du Animsa osatzen duten toki erakundeen mesedetan.

Jarduketa honi esker, Animsak kideei IKT zerbitzuak (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) hobetu eta administrazio elektronikoa bultzatuko du Nafarroan. Honek eragin positiboa izango du lurraldearen antolaketan, Europako Agenda Digitala betetzeko ahaleginean eta Administrazioaren zerbitzuen hobekuntzan. Hauexek dira Nafarroako Gobernuaren 2016-2021eko Banda Zabalaren Plan Zuzentzailea osatzen duten lau ardatz estrategikoetako hiru.

Animsa Nafarroako toki erakundeek osaturiko merkataritza-sozietatea da. Egun, 162 toki erakunde ditu, baina badira zenbait eskaera Udaletako, Kontzejuetako eta hauen menpeko erakundeetako informazio eta komunikazio teknologiak kudeatu eta garatzeaz arduratzen den sozietate honetan sartzeko.

Nasertic Nafarroako Gobernuaren barruko Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa taldekoa da, eta zerbitzu informatikoak ematen dizkie Administrazio Publikoei, komunikazio elektronikoetarako azpegiturak,



Beaumont kontseilaria eta Asiron alkatea hitzarmena sinatzeko unean.

sistemak eta sareak hedatu, ustiatu, kudeatu eta mantentzeaz gain.

Bi sozietateen arteko hitzarmenak bost urteko iraupena du, baina beste bost urtez luzatu ahalko da. Jarraipen batzordea eta batzorde teknikoa sortu dira, akordioa era koordinatuan bete eta garatuko dela bermatzeko.

Beaumont kontseilariak berriaz nabarmendu du hitzarmenak “2016-2021eko Banda Zabalaren Plan Zuzentzailearen lau ardatz estrategikoetako hirutan” izango duen eragina, eta ongi baloratu du “baliabide publikoak partekatu eta eraginkortasunez erabiltzea, bereziki kontuan harturik toki erakundeetako beharren eta Gobernuaren egoitza desberdinen artean dauden sinergiak, operadoreen sareek Nafarroako zenbait lekutan dituzten gabeziak estaltzen lagunduko dutenak”.

Haren iritziz, hitzarmenak xede duen konektibitatea “funtsezkoa da herritarrei eskainitako zerbitzu publikoak hobetzeko, Administrazioaren kudeaketaren eraginkortasuna areagotzeko eta administrazio elektronikoaren zerbitzuak ezartzeko”.

Animsako Lehendakaria den aldetik, Asiron alkateak adierazi du “akordio hau arras positiboa dela Animsa Sozietateari atxikita dauden toki erakundeentzat, Nafarroako Gobernuak eta Animsak emandako zerbitzu telematikoetarako sarbide hobea eta azkarragoa izanen baitute, baita Internetarako konektibitate hobea ere”.

Horrez gain, argi utzi du, “honetako hitzarmenak estu-estu lotuta daudela baliabideen kudeaketa hobetzeko sektore publikoko erakundeen artean bultzatu beharreko lankidetzarekin, sinergiak sortu, aurrezki adierazkorrak eragin, bizkoiztasunak saihestu eta herritarrei zerbitzu hobeak eskaini ahal izateko”.